

Zer izango da zer?

Johanna Ramirez Romero
DBH 1. eta 2. kurtsoak (aipamena)
Berako Toki Ona BHI

Kontatuko dizuet behin batean kontatu zidaten sekretu bat ...

Ni naiz norbaitek ni izatea nahi izan duelako

Eta nik nahiko dudalako izango da geroago norbait.

Atzo egindakoa ikusiko da gaur, baina, gaurkoa ez atzo.

Naizena izatea ez dut nik aukeratu,

Norbaitek aukeratu du

Baina izango naizena ez du inork erabakiko

Ni naizen bezalakoa izaten jarraituko dudalako.

Nik handitan bizitzari kolorea jarriko diot,

Hauxe izanen da ni izanen naizena.

Jendearen begirada krudelak pozez margotuko ditut,

Zientzia aspergarri, sentimendu gabea alaitasunez apaindu

Plastikozko panpina perfektuak kenduko ditut,

Eta jendearen hipokresia margo beltzez estaliko dut.

Berdintasunaren koloreko margo pote handi bat erosiko dut.

Eta batez ere... "Perfekzio" terminoa ezabatu hiztegietatik.

Eskola handi bat eraikiko dut munduko haur guztientzat
Bertan maitatzen erakutsiko diet.
Eguzkiaren kolorea horia eta zeruarena urdina dela...
Hau da ikasiko dutena.

Gizarte beltz, ilun hau argizatuko dut,
Jendearen ilusioz eraikiko dut mundu berri bat
Bertan ez da gerrarik egongo
Ez eta pobre edo aberatsik.

Tristura... egia esateko ez dakit zer egingo dudan
Esadazu, zer egin honekin?
Tristura desagerraraziko nuke,
Baina badakit honek askotan indartzen nauela.

Hau da ni izango naizena
Nire etorkizuna
Eta orain jakin nahi dudana zera da:
Zer izango da munduaz?

Mundua nik egingo dudan hau izanen da
Mundua ez da hitz huts bat izanen
Sentimenduz beterik
Pozez horniturik egonen da.

Munduak maitasun usaina, poztasun kolorea
Fideltasunaren pisua eta esperantzaren tamaina izanen du,
Eta zer izen?
“Poesia” izena izanen du.